

## Maribel Vaquero

Senaturako Gipuzkoako hautagaia / Candidata al Senado por Gipuzkoa  
Donostia 2019-11-03

***Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.***  
*El único discurso válido será el pronunciado por la oradora en el acto.*

Urriaren 19an, Donostian, berriro ere EAJk Estatuko Gorteetara aurkezten zuen taldearen aurkezpena egin genuen. Berriro ere esaten dut, talde berdina, programa eta lema berdinarekin, sei hilabete beranduago, aurkezten garelako.

Aurrekanpaina guztian, hauteskunde hauek ez ohikoak direla esan dugu, eta gogorarazi behar dugu, behin eta berriro, estatuko alderdien inkompetentziak eta arduragabekeriak bultzatutako hauteskundeak direlako. Nonbait, apirilaren 28an, orduan Estatuan hauteskundeak irabazi eta gobernatzeko aukera izan zuen PSOErentzako, ez zelako konpromisoa hartzeko 'unea'. Honela, haserre hori erantzun aktibo bihurtzea eskatzen genuen, eta dugu. Erantzun aktibo, boto aktibo, Euzko Alderdi Jeltzalearen alde.

Euzko Alderdi Jeltzalearen aldeko botoa ematea eskatzen dugu, konpromisoa hartzen duen botoa delako. Bi arrazoi nagusiengatik:

Lehenengoa: Taldea. Euzko Alderdi Jeltzaleak, konpromisoa hartzen duten gizon emakumez osatutako taldea aurkezten du. Ibilbide eta esperientzia politikoa duten pertsonen osatutako taldea. Kanpainaren aurkezpenean esaten genuen modura, itsaso txarrean ere arraunean, iparra galdu gabe, aritzeko prest dagoen taldea. Gu guztiontzat, gure Iparra, Euskadi eta euskal herritarren eskubideak eta beharrak direlako, hori da gure egiteko nagusia.

Gure taldea, euskal taldea, sendoa da. Eta ez dugu soilik Madrilera, Kongresu zein Senatura joango diren pertsonen osatzen; Udaletan, Batzar Nagusietan, Aldundietan, Legebiltzarrean, Jaurilaritzan direnek osatzen dute ere, eta noski, zuek guztiok Euskal Herriko herrietan zaudeten alderdikideok.

Pedimos el voto para el Partido Nacionalista Vasco, por dos razones:

Primera, tal y como he dicho, porque formamos un equipo sólido, acostumbrado a remar, sin perder el rumbo en la tempestad. Porque nuestro equipo, está compuesto por quienes iremos a Madrid, y también por los cargos de los Ayuntamientos, Juntas Generales, Parlamento Vasco, Gobierno Vasco y nuestra representante en Europa. Todos y todas formamos un equipo con un fin: defender los derechos e intereses del Pueblo Vasco.

La segunda razón para votar al PNV es qué defendemos y cómo lo hacemos. Lo que denominamos la Agenda Vasca, que va más allá de la transferencia de las competencias pendientes. Desde las necesidades más cercanas, como puede ser la eliminación de un paso a nivel, a solicitar la transferencia, que por Estatuto nos corresponde, de los trenes de cercanías. O como en el caso de Donostia, y siguiendo con los trenes, hacer que la entrada del Tren de Alta Velocidad en Donostia sea una realidad, acompañando tanto al Ayuntamiento y al Gobierno vasco en esta realización.

Formularemos propuestas constructivas para crear bienestar y avanzar en los derechos sociales. Y Seguiremos defendiendo Euskadi en Madrid. Planteando el derecho a decidir nuestro futuro como pueblo, de manera democrática.

Bi arrazoi Euzko Alderdi Jeltzaleari botoa emateko; Euskal Taldea eta Euskal Agenda. Eta bi arrazoi hauei, hirugarren bat gehituko diot: Euzko Alderdi Jeltzaleak politika egiteko eta ulertzeko duen modua.

Guretzako, konpromisoa hartzeko garaia, unea, atzo, orain eta bihar da. Ez dugu politikaren ariketa intermitentea ulertzen. Garai zailenetan ere konpromisoa hartzen dugu.

Eta garai zailak datoz. Ezegonkortasun politiko handia bizi dugu eta aldiz erronka politiko zein ekonomikoei aurre egiteko garaia da.

Ez dugu etsiko Euskadiren naziotasunaren aitortza, eta subiranotasun partekatuaren gauzapenean, ezta euskaldunen eskubideen defentsan ere. Demokraziaren ariketa defendatuko dugu, Estatuaren inboluzio demokratikoaren aurrean. Beti diogun bezala, errespetuz jokatu dugu, eta errespetua exijituko dugu.

Guzti honetarako badugu taldea, Euskal Taldea eta zuen guztion indarra.

Gora Euskadi Askatuta!